



Frantziak bigarren erasoaldian parte hartu zuen 12 hegazkinekin

Lehenengoan ez ziren izan hegazkinak irakiarrenak bezalakoak direlako

Frantziako hamabi hegazkinek Iraken aurkako bigarren erasoan hartu zuten parte. Horietatik lau ikutuak izan ziren, baina zauritu arin bakarra izan zen pilotuen artean. Aurretik Mitterrand-ek Bush-ekin hitzegin zuen. Lurreko tropa frantziarrak erasotzen hasi gabe zeuden oraindik.

JOXEMI SAIAR / DONOSTIA

Jaguar hegazkin bateko pilotua da zauritu arina eta bere familiari abisua eman diote Jean Pierre Chevenement Defentsa ministroak adierazi zue-
nez. Hamabi hegazkin frantziarrek Kuwaiten hegoaldea erasotu zuten eta ekintzan lau hegazkin ikutu zituzten, bat oso larriki kaltetuz, baina pilotu guztiak bizirik eta arriskutik kanpo daude.

Schmitt generalak, Armadaren Estatu Nagusiko buruak, hegazkin frantsesek, estatubatuarrekin batera, erasotu zuten zonan Scud misilak, defentsa antiaereoak SAM 6 eta SAM 8 misilekin, eta defentsa antiaereo kanoiak eta metrailetak zeudela esan zuen. Guzti horiek medio elektronikoen bidez bakarrik deuseztu zitezkeela esan zuen Schmitt generalak.

HASIERA BESTERIK EZ Chevenement ministroak Estatu Batuekin protokolo akordioa sinatu zutela iragarri zuen eta Frantziak Irakeko lurraldean ez duela parte hartuko. «Guzti hau hasieraren hasiera besterik ez da» adierazi zuen Defentsa ministroak. Hegazkin frantziarrek indar aliatuek Iraken



Jean Pierre Chevenement Golkoan dauden soldaduak bisitatu zituen irailean.

REUTER

egindako aire erasoaren lehenengo fasean ez zuten parte hartu. Horren arrazoiak hegazkin frantziarrek eta irakiarrek berdina izatean dago. Berdinak izanik sistema elektronikoez ezin dituztelako bereiztu ez zuten parte hartu atzoko 00.30etako erasoan. Kuwaiteko helburu militarren aurkako bigarren erasoaldian berri, parte hartu zuten hegazkin horiek.

Golkoan dauden soldaduak laguntzeko odola hotza eta abertzale-tasuna argi eduki dezatela eskatu zuten frantsesei Chevenementek.

BERROGEI HEGAZKIN GOLKOAN François Mitterrand lehendakariak Kuwait askatzeko indar militar frantsesen partaidetzarako bai-

mena eman eta handik ordu t'erdira egin zituen adierazpen hauek Defentsa ministroak.

Frantziak 40 hegazkin ditu Golkoan: hamabi Mirage 2.000 ehizegazkin, lurreko erasorako 24 Jaguar eta errekonozimendurako lau Mira-

ge F1-CR. Cehevenementek «Errepublikako lehendakaria eta Gobernuaren izenean afektu, onespen eta konfidantza» adierazi zien soldadu frantziarrei. Bakea lortzeko Frantziako Armadaren arrakasta desio duela adierazi zuen.

Legebiltzarra beranduegi bilduko dela dio Anguitak

MADRIL

Espainiako indar politiko guztiak, hasi eskubitik eta ezkererraino, gerraren aurka jarri ziren atzoko lehen-dabiziko orduetan, Estatu Batuen eta indar multinazionalen lehendabiziko bonbardaketak izan ondoren. Alderdi-
diek bilerak inprobisatu zituzten egoera aztertzeko eta gaur Kongresuan egingo den osoko bilkura pres-tatzeko.

PSOEren Antolakuntza idazkariak, Jose Maria Benegasek, Golko gerran «ahal den hildako kopuru txikiena» izateko itxaropena azaldu zuen. Saddam Hussein «intransigente fundamentalistak» gerra «ebitaezina» egin duela baieztatu zuen Txiki Benegasek, nahiz eta nazioar-teko komunitateak gerra ekiditeko saio posible guztiak egin. Egoera lehenbailehen normalizatzea espero du ordezkari sozialistak.

Jose Maria Aznar PPko lehendakariak gerraren hasieraren errua lehendakari irakiarri leporatu zion baita ere.

Iuren koordinatzaile nagusiak hitz gogorrak izan zituen Gobernu espainarra eta Estatu Batuen aurka. «Espainia inplikatur dago gerran, nahiz eta laguntza logistikoa emanez egon, intendentzia Armadaren zati bat delako» adierazi zuen. «Gerra hasi eta handik 48 ordu-tara Legebil-

tzarra bilduko den Estatu bakar-
gara» salatu zuen Anguitak. Estatu Batuek eta Iraken arteko gerra hastea «astakeria» dela eta «une hauetan mendebaldetarra izateagatik lotsa sentitzen dut» adierazi zuen. «Inbadi-tzailea bidaltzeko egingo den kal-tea mila aldiz handiagoa izango da» adierazi zuen eta aliatuei gogorae-razi zien, arazoak arazo gehiago sor-tu gabe konpondu behar diela. Ba-kearen aldeko pertsona guztiak mo-bilizatuko dituela iragarri zuen Julio Anguitak «ez gerra geldierazteko bakarrik, gure untiak itzul daitezen baizik».

BASEAK ERABILTZEN EZ UTZI Estatu Batuei Espai-nian dituen baseen erabilera debekatzea eskatu zuen Anguitak. Espainiaren partaidetza militarren aurka, Es-tatu Batuek zuzentzen duten indar multinazionalen laguntza logistikoa barne, jartzen den edozeini IUK «la-guntza politiko, sozial eta juridikoa» emango diola iragarri zuen. Medi-terraneoko estatuek jasango dituz-tela ondorioak adierazi zuen politi-kari komunistak eta interbentzioak «beste gatazka eragingo duen senti-mentu panarabiar fundamentalista» sortuko duela esan zuen. Estatu es-painiarrak hartutako papera kritikatu zuen eta PSOE, PP eta CIU alderdiek «haiseratik gerraren logikan» insta-

Atentatu bat sinagoga baten aurka Lyon inguruan

LYON

Lyon ondoko Venissieux herriko sinagogaren aurka atentatu bat egin zuten asteaz-ken gauean, gerra hasi baino ordu batzuk lehenago. Eliz musulmanaren aurkako era-soan ez zen biktimarik izan. Hiru koktel Molotov bota zi-tuzten herenegun gaueko 22.30etan sinagogako atearen kontra, Minguettes auzoan. Koktelek ez zuten kalterik sortu.

Lekukoek esan zuten, atentatuaren ustezko egileak Polizia iritsi baino lehenago ihes egin zuten zenbait gizon izan ziren. Atentatua ez du inork errebindikatu oraindik. Tenpluaren inguruan polizia neurriak hartu ziren, «Vigipi-rate» operazio antiterrorista-ren barneko bigarren fasean.

Sinagoga horren aurkako erasoak Irak eta Saddam Hus-seinen aurkako kanpaina be-zala interpretatu daiteke, nahiz eta atentatuaren egiletza inongo talde terroristak ez ai-tortu. Poliziak segurtasun neurri bereziak hartu ditu ara-biarren egoitzak eta estatuba-tuarren interesak babesteko.



Julio Anguita.

EFE

latu direla salatu zuen. IUK Estatu Batuek hasitako ekintza belikoa sa-latu zuen «ondorio kalkulaezinak» dituen gerra ekarriko duelako.

CDSko idazkari nagusia, Jose Ra-mon Caso, gerraren aurka azaldu zen baita ere. Irtenbide diplomatiko eta negoziatuaren alde jokatu du alderdi zentristak azken hilabete hauetan eta militarki parte hartu gabe Iraken aurkako enbargo ekonomikoak ja-rraitzea nahi zuen.

Alderdi katalan nagusiek (CIU, PSC, IC, ERC) ere gerra hastearen aurka posizionatu ziren eta lehen-baitlehen bukatzea espero dute.

Espainiako 3 untiak enbargoa betearazten segitzen dute

DONOSTIA

Estatu espainiarrak bidalitako hi-ru untiak lehenengo lekuan segitzen dute Estatu Batuek Irak erasotu eta gero ere. Defentsa Ministraritzako eledun batek adierazi zuenez, 'Nu-mancia' fragatak eta 'Infanta Cristi-na' eta 'Diana' korbete lehen-go helburuekin segitzen dute —en-bar-goa betearaztea alegia—, eta «orain-go egoerarako aurikusitako agin-duak betetzen ari dira». Untziak zehatz-mehatz non dauden argitu ezin dutela adierazi zuten Ministeri-tzatik. Operazio militarren gunetik urrutiratu zirela azaldu zuten hala ere.

Bostehun marinel baino gehiago dira Espainiako Armadak gatazka gunera bidali zituenak. Datozen egu-notan, beste fragata bat, 'Extremadu-ra' delakoa, Mediterraneoko ekial-derantz abiatuko da NATOk inda-

rrekin —NAVOCFORMED— bat egitera. Turkiaren defentsarako eta inguruko itsas trafikoa kontrolatze-ko eratu du Aliantza Atlantiarrek flota hori.

Honez gain, Torrejon (Madril), Zaragoza, Rota (Cadiz) eta Morón-eko (Sevilla) base militarrek fun-tsezkoak dira Estatu Batuetako Ai-reko Armadarako, eskala teknikoer-tarako beharrezkoak izan bait zaiz-kio baseok.

Espainiaren pasrtehartzea joan zen irailean hasi zen 'Santa Maria', 'Cazadora' eta 'Descubierta' un-tziak bidalita. Hiru hauek ordezkatzera heldu ziren orain gatazka gu-nean jarraitzen duten hirurak. Hauen ordezkariak gerra hasi eta gero ere, 'Victoria' fragata eta 'Ven-cedora' eta 'Infanta Elena' korbeta, nahiz eta Espainiako Defentsa mi-nistraritzak data zein izan daitekeen argitu ez duen.